

Funtsezko elkarteak

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu funtsezko elkarteak. Gure kasuan, hasieran laguntza eta kontaktuak behar izango ditugunez, hainbat aliantza sortzea nahi dugu. Izan ere, honek **merkatuan hasieran behar dugun egonkortasuna** ematea espero dugu, hori ez izatea baita gure kezkarik handiena. Beraz, honek dira pentsatu -eta lortu- ditugun kolaborazioak eta hornitzaileak:

- Telak:

- **Nastasianash-ekin kolaborazioa eta ehunen hornikuntza:** materialak merkeago eskuratzeko, bere marka eta bere tela dendan promozionatuko ditugu. Beraz, horrekin nahiko diru aurreztuko dugu, egiten dugun salmenta bakoitzeko oparia ematen baitigute. (<https://www.nastasianash.com/telas-ecologicas/>)

- **Arropa bilketa kolektiboa:** Bezeroak edo jendeak erabiltzen ez duten arropak bota dezaten hainbat kokalekuetan, ontzi pertsonalizatuak jarriko ditugu. Arropa hauek guk erabiliko ditugu etorkizunean, berrerabiltzeko asmoarekin.



- **Tejidos Marian (Zarautz):** merkataritza lokala sustatzeko herriko tela dendetan erosiko dugu materialaren zati bat.

- Beharrezko materialak:

- **Josteko makinak:** beharrezkoak diren kasuan, berriz ere, merkataritza lokalean erosiko ditugu. Halere, baliteke beste leku batzuetatik erostea beharrezko makineria. (<https://imaquinasdecoser.com/sigma/>)

- Langileak:

- **Eusko jaurlaritzak proposatutako lanbide-heziketatik etorritako dualeko ikasle/langileak** (<https://www.fpeuskadidual.eus/familia-profesional/textil-confeccion-y-piel/>): ikasleak esperientzia irabaziko dute eta bitartean, guk ekoizpena handitzeko aukera izango dugu langile gehiago izateko aukera izango dugu eta.